

GERNIKA-LUMOKO GAZTEEN LOKALEI BURUZKO UDAL ARAUDIA.

ORDENANZA MUNICIPAL SOBRE LOS LOCALES DE JÓVENES DE GERNIKA-LUMO.

ZIOEN ADIERAZPENA

Azken urte hauetan, gazte lonjen fenomenoak kontuan hartzeko beste hazi da Gernika-Lumon, eta baita beste herri batzuetan ere.

Gazteek beste modu batzuetara antolatzen dute aisialdia. Egun, gure udalerrian 70 lonja baino gehiago daude eta haietan 1.000 gazte inguru batzen da.

Hala eta guztiz ere, lonja bakoitzak dituen baldintzak eta ematen zaien erabilera oso desberdina da.

Errealitate berri baten aurrean gaude, eta lonjen arteko bizikidetzak behar bezalakoak izan dadin, guztion ahalegina da beharrezkoa. Araudi hau, hortaz, 2010eko urtean Gernika-Lumon eman den prozesu parte-hartzailearen emaitza da.

Gizarte-gertakari honetan inplikaturako herritarren arteko (gazteak, auzotarrak, jabeak eta adin txikikoen gurasoak) lan-dinamika honek, bere horretan, honako elementuak eta fenomenoak eragin ditu:

- Herritarren eta administrazioaren arteko hurbilketa eta elkarrizketa. Horri esker, gaia testuinguruan kokatu, hausnartu eta eztabaidatu ahal izan da, eta taldeko proposamenak sortu dira.

- Alderdi guztien artean adostasun batera iritsita, gazteak batzeko lonjen asmoa, gizarte-gertakari gisa, garatzeak duen garrantziaren onarpena.

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

En los últimos años el fenómeno de las lonjas juveniles ha tenido un crecimiento considerable tanto en Gernika-Lumo, como en muchos otros pueblos.

La juventud ha desarrollado nuevos modos de organizar su tiempo de ocio. Hoy en día existen en el municipio más de 70 lonjas en las que se reúnen alrededor de 1.000 jóvenes.

Tanto las condiciones en las que se encuentran las lonjas como el uso que se hace de ellas es muy diferente.

Esta nueva realidad requiere el esfuerzo de todas y todos para lograr una convivencia. Esta normativa es el resultado de un proceso participativo desarrollado en Gernika-Lumo en el año 2010.

Dicha dinámica de trabajo con la ciudadanía implicada en este nuevo fenómeno social (jóvenes, vecindad, propietarios/as y padres/madres de menores), ha desarrollado en sí los siguientes elementos y fenómenos:

- *Un acercamiento y diálogo entre ciudadanía y administración, que ha permitido contextualizar, reflexionar, discutir y crear propuestas de carácter colectivo.*

- *Una aceptación, con acuerdo, de la importancia que tiene en sí el desarrollo, como fenómeno social, de las lonjas como puntos de encuentro para jóvenes.*

- Herritarrek adostutako proposamenak eta iritziak jasotzea, egoera honekin zerikusia duten gaiak eta esparruak arautu eta normalizatzeko.

- Gazte lonjetan aplikatuko den protokoloa bizikidetza proposamena da, prozesu parte-hartzailean landu eta onartu dena. Protokolo hau ordenantza honen agiri-eranskin gisa aurkeztuko da.

I. KAPITULUA.- EZARPEN EREMUA.

1. ARTIKULUA.- XEDEA.

Ordenantza honen xedea honakoa da: batez ere gazteek aisialdi alternatiborako erabiltzen dituzten guneei, nahitaez, gutxieneko segurtasun eta garbitasun baldintzak betetzen dituztela bermatzea, eta bestalde, erabiltzaileei eta auzotarrei sor dakizkiekeen traba eta arriskuak ekiditea.

Udalerrian dauden gazte lonjen erabilera arautzea du helburu Ordenantza honek.

HELBURUAK:

a. Gazte lonjek gutxieneko baldintzak bete ditzaten ziurtatzea, hau da, bizigarritasun, higiene eta erosotasunari dagozkienak eta baita segurtasunari eta auzotarrei eragin liezaizkiekeen eragozpenei buruzkoak ere.

b. Lonjen erabilera eta auzotarrei enbarazurik ez egiteko duten eskubidea bateragarri izatea. Azken finean, lokalen erabilera eta auzotarren eskubideak bateratzea da lortu nahi dena, eta horretarako, dagozkion neurri zuzentzaileak hartzea.

- La recogida de propuestas y opiniones acordadas por parte de la ciudadanía, para regular y normalizar diferentes temáticas y ámbitos que conciernen a este asunto.

- El protocolo a aplicar en las lonjas juveniles es una propuesta de convivencia, elaborada y aceptada en el proceso participativo. Dicho protocolo se presenta como documento anexo a esta ordenanza.

CAPITULO I.- AMBITO DE APLICACIÓN.

ARTICULO 1.- OBJETO.

La presente Ordenanza tiene por objeto garantizar que los espacios de ocio alternativo utilizados principalmente por los/as jóvenes reúnan las condiciones mínimas necesarias de seguridad e higiene, y eviten todo tipo de molestias y riesgos para los/as propios/as usuarios/as y para el vecindario.

El fin de esta Ordenanza es regular el uso de las lonjas juveniles del territorio municipal.

OBJETIVOS:

a. Asegurar que las lonjas juveniles cumplan unas condiciones mínimas, tanto en lo que se refiere a la habitabilidad, higiene y comodidad, como a las medidas de seguridad y demás molestias al vecindario.

b. Hacer compatible el uso de las lonjas con los derechos de los vecinos y las vecinas a no ser molestados/as. En definitiva, conciliar el uso de los locales con los derechos del vecindario mediante la adopción de las correspondientes medidas correctoras.

c. Gazte lonjek sortzen dituzten arazoak murriztea eta bizikidetasuna bultzatzea.

2. ARTIKULUA.- DEFINIZIOA.

Gazte lonjak sarrera mugatua duten gune pribatuak dira, eta ez daude mundu guztiarentzat zabalik. Eraikinetako behe solairuan egon ohi dira lonjak. Gazteek aisialdirako erabili ohi dituzte, erreferentzia-gune dira haientzat eta lagunekin batu eta egoteko erabiliak izaten dira.

3. ARTIKULUA.- ORDENANTZAREN APLIKAZIO-EREMUA.

Ordenantza honek Gernika-Lumoko bizitegi lurzoru hiritarrean dauden lonjetan izango du eragin eta baita industrialdean direnetan ere. Gaur egun egon daudenetan eta gerora irekiko direnetan ere bai. Ordenantza hau kontuan hartu beharko da, hortaz, irekiko diren lonja berrietarako zein gaur egun daudenak egokitzeko.

4. ARTIKULUA.- ERABILERA

A. Lokal hauek 165/1999 Dekretuaren baldintzekin bat egin behar dute. Jarduera lizentzia izatetik, beraz, salbuetsita daude, etxebizitzetako beheko solairuan kokatutako zentro asoziatiboak baitira, eta dantza, kantu edo musika profesionalaren jarduerarik eduki ezin dutenak. Ezingo dute, gainera, gazteen aisialdiarekin zerikusi zuzena ez duten jarduerarik burutu, ez eta gogaikarriak direnak edo debekatuta daudenak. Debekatuta dago, halaber, ezer saltzea edo erostea lokal hauetan.

b. Berariaz araudi honetatik kanpo geldituko dira, ostalaritzako jarduerak, hala nola, zirkuetan, barraketan,

c. Reducir el número de problemas que originan las lonjas juveniles e impulsar la convivencia.

ARTICULO 2.- DEFINICIÓN.

Las lonjas juveniles son locales privados de acceso limitado, que no están abiertas a todo el público y que se suelen encontrar situadas en las plantas bajas de los edificios. La juventud las utiliza como lugar de ocio, de referencia y para relacionarse con la cuadrilla.

ARTICULO 3.- AMBITO DE APLICACIÓN DE ESTA ORDENANZA.

Esta Ordenanza afecta tanto a las lonjas que se encuentran en el suelo residencial de Gernika-Lumo como a las que están en la zona industrial, a las que existen actualmente como a las que se abran en el futuro, por lo que se tendrá en cuenta tanto para la apertura de nuevas como para la adecuación de las existentes.

ARTICULO 4.- USO

a. En estos locales sometidos al Decreto 165/1999, y por eso exentos de licencia de actividad, por ser centros asociativos ubicados en planta baja de vivienda en los que no se realiza actividad profesional de baile, canto o música, no tendrán cabida, además, actividades que no tenga relación directa con el ocio juvenil, que sean molestas o estén prohibidas legalmente. La compraventa de cualquier producto también esta prohibida.

b. Quedan expresamente excluidas de la presente regulación las actividades hosteleras, tales como servicios de bar,

txosnetan, txoko gastronomikoetan kokatutako taberna, kafetegi edo jatetxe zerbitzuak, eta baita 165/1999 Dekretuko II. Eranskinean aipatutako jarduera guztiak ere.

c. Debekatuta daude auzotarrei gogaikarri zaizkien jarduerak, eta baita eraikinaren segurtasuna arriskuan jarriko luketenak ere. Sukalderik jartzea ere debekatuta dago.

d. Debekatuta dago era guztietako erregaiak biltegitratzea eta kontsumitzea, berogailuentzako erabiltzen dena salbu.

5. ARTIKULUA.- NORI DAGO ZUZENDUTA.

1. Gazteei: Ordenantza honen bidez, gazte lonjek dituzten baldintzak hobetzea da helburua. Lonjetako erabiltzaile eta errentari diren aldetik, gazte hauek dituzten eskubideak ezagut ditzaten nahi da. Beste alde batetik, honelako jarduera baten aurrean dituzten betebeharrak eta ardurak ezagutu behar dituzte gazte hauek.

2. Auzotarrei: Zarata izan ohi da lonjen erabiltzaileen eta erkidegoaren arteko gatazka nagusiaren jatorria. Lokal hauen inguruan sortzen den zikinkeria ere izan daiteke gatazka-eragile bizikidetzan. Ordenantza honen xedea arazoak murriztea da eta alde bietako eskubideak beteko direla ziurtatzea.

3. Lokaletako jabeek: Ordenantza honek gazte lokalak bezala erabili ahal izateko eduki behar dituzten baldintzak arautzen ditu. Lonjetako jabeek, hortaz, ordenantza honen berri izan behar dute, honetan zeresana ere baitute.

café o restaurante en circos, barracas, choznas, txokos gastronómicos y todas aquellas actividades relacionadas en el anexo II del Decreto 165/1999.

c. Estarán prohibidas las actividades molestas para el vecindario o que pongan en riesgo la seguridad del edificio y así como la instalación de cocina.

d. Se prohíbe todo almacenamiento y consumo de toda clase de combustibles, excepto el destinado a uso de calefactores.

ARTICULO 5.- A QUIEN VA DIRIGIDA.

1. Jóvenes: *Por medio de esta Ordenanza se pretende mejorar las condiciones en las que se encuentran las lonjas juveniles. Busca que las y los jóvenes conozcan sus derechos como personas usuarias e inquilinas. Por otro lado, también deben conocer las obligaciones y responsabilidades que asumen al desarrollar una actividad de este tipo.*

2. Vecinas y vecinos: *El ruido es el origen principal de los conflictos entre las personas usuarias y la comunidad. La falta de limpieza que se puede producir en torno a estos locales también afecta a la convivencia. El objetivo de esta Ordenanza es reducir los problemas y asegurar que los derechos de las diferentes partes se cumplan.*

3. Propietarias y propietarios de locales: *esta Ordenanza regula las condiciones que deben tener las lonjas para poder ser utilizadas como locales juveniles. Es por ello que las propietarias y propietarios deben conocerla ya que son*

parte implicada.

6. ARTIKULUA.- LOKALOK BETE BEHARREKO GUTXIENEO BALDINTZAK

6.1 Edozein lokal ez da egoki edozein jarduera burutzeko, segurtasun eta higieneren gaineko gutxieneko baldintzak bete behar baitituzte. Lokal hauek arautze aldera, honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

AZPIEGITURAK

a. **Argia:** Derrigorrezkoa da argiaren instalazioa erabiltzeko egoera onean eta ofiziala delako egiaztagiria izatea.

b. **Ura:** Derrigorrezkoa da ur-hargune bat eta kontagailua izatea, gutxienez, garbilanak eta erabiltzaileen kontsumoa ziurtatzeko.

c. **Komuna:** Komuna izan behar dute eta bertan konketa bat eta komuna izan beharko ditu.

d. **Su-itzialgailua:** Legeak ezarrita duenaren arabera su-itzialgailuak eduki beharko dituzte. Gutxienez, sei kiloko hautsezko su-itzialgailu bat eta beste bat CO₂-koa, panel elektrikoaren alboan. Esku-eskura egon beharko dute eta mantentze-kontratua indarrean.

e. **Larrialdietako argiak:** Irteerako seinaleztapena eta irteera bera non dagoen eta, halaber, larrialdietako gailuak era egokian egon behar dute jarrita. Horretarako, Eraikinetarako Kode Teknikoan agertzen diren suteen prebentzioaren gaineko argibideak hartu behar dira kontuan. Kontuan hartuko da,

ARTICULO 6.- CONDICIONES MÍNIMAS QUE DEBEN CUMPLIR ESTOS LOCALES.

6.1 Cualquier local no es adecuado para realizar diferentes actividades, dado que debe cumplir unas condiciones mínimas de seguridad e higiene. Con el objetivo de regular estos locales se deberán cumplir los aspectos que se señalan a continuación.

INFRAESTRUCTURAS

a. **Luz:** *es obligatorio que la instalación de luz esté en condiciones adecuadas para su uso y que tenga el certificado de instalación oficial.*

b. **Agua:** *Es obligatorio que haya por lo menos una toma de agua con su contador para asegurar las labores de higiene y el consumos de las personas usuarias.*

c. **Baño:** *deberán disponer de baño dotado como mínimo de lavabo e inodoro.*

c. **Extintor:** *Deberán disponer de los extintores que marca la ley como mínimo un extintor de polvo de 6 kilos y otro de CO₂ junto el cuadro eléctrico. Deben estar a mano y tener el contrato de mantenimiento.*

d. **Luces de emergencia:** *Tanto la señalización hacia la salida como donde se encuentra ésta, así como la de los dispositivos de emergencia estarán adecuadamente colocados siguiendo las indicaciones que sobre prevención de incendios aparecen en el Código Técnico de Edificación. Se tendrá en cuenta el*

halaber, lokalaren tamaina.

Larrialdietarako argia egon beharko da gela guztietan.

f. **Edukiera:** Zein edukiera duen ezarrita egon behar da. Horretarako, Eraikinetarako Kode Teknikoan agertzen diren suteen prebentzioaren gaineko argibideak hartu behar dira kontuan. Behe solairuan, erabilera publikoa duen gunean 2m-ko pertsona bat da, gutxi gorabeherako kalkulua.

Gehienezko edukiera hau lokal barruko begi-bistakoa den toki batean jarri beharko da.

g. **Ateak:** Sartzeko eta irteteko atearak 90 cm-ko zabalera eduki behar du, gutxienez. Gainontzeko atearak 80 cm eduki beharko dute, irisgarritasunaren gaineko 2000/68 Dekretuaren arabera.

h. **Sarrera:** Lokalek sarrera egokitua izan behar dute, segurtasun eta irisgarritasun neurriak ziurtatzeko. Lokal hauek kalerako zuzeneko sarbidea izan behar dute. Ezingo dute, bestalde, atalondotik sarbiderik eduki.

Gazte Informazio bulegoan izango da eskuragarri informazio hau.

Lehen laguntzetarako botikina eduki beharko da.

6.2 Udalak instalazioak ikuskatu ahal izango ditu, baldintzak betetzen dituztela ziurtatzeko, edo, bestela, neurri zuzentzaileak ezartzeko.

7. ARTIKULUA.- BIZITEGI-ZONAKOAK EZ DIREN LOKALEN KOKAPENAREN GAINEKO BALDINTZA BEREZIAK.

tamaño del local.

Habrá una luz de emergencia en todos los habitáculos.

*f. **Aforo:** Deberá fijarse el aforo teniendo en cuenta las indicaciones que sobre prevención de incendios aparecen en el Código Técnico de Edificación. El cálculo aproximado será de 1 persona por 2m en zona de uso público en Planta Baja.*

Dicho aforo máximo deberá exponerse en dentro del local en un lugar visible.

*g. **Puertas:** la puerta de entrada y salida tendrá 90cm. de ancho como mínimo. El resto de las puertas tendrán 80 cm de acuerdo con el Decreto 68/2000 sobre accesibilidad.*

*h. **Entrada:** los locales deben de tener entrada adaptada para asegurar las medidas de seguridad y accesibilidad. Estos locales deben tener acceso directo a la calle, y no podrán tener acceso por el portal.*

Esta información estará disponible en la oficina de información juvenil.

Habrá un botiquín de primeros auxilios.

6.2 El Ayuntamiento podrá inspeccionar las instalaciones para asegurar que cumplen los requisitos establecidos y en caso necesario aplicar medidas correctoras.

ARTICULO 7.- CONDICIONES ESPECÍFICAS DE EMPLAZAMIENTO EN ZONAS NO RESIDENCIALES.

Bizitegi-zonakoak ez diren lokalen araubideari dagokionez, plangintzan aurreikusitakoa izango da kontuan, eta hala ez bada, Ordenantza honetan aurreikusitakoa; baldin eta lokal horien ondorioz pertsoneri edo ondasunei arazoak sortzeko edo ingurumenari kalte egiteko arriskua badago.

8. ARTIKULUA.- ASEGURUA.

Erantzukizun zibileko aseguru eduki behar du lokalak. Gutxieneko estaldura 100.000 €-koa izan behar da. Aseguru honek erabiltzaileak eta hauen ondasunak babestu behar ditu, edozer gertatuta ere; hirugarrenen artean ere babes bera izango dute. Erabiltzailek eurek kontratatuko dute aseguru hau. Adingabeen kasuan, hauen tutoreek egingo dira kargu aseguru horretaz.

9. ARTIKULUA.- KONTRATUA.

Lokalek alokairu edo erabilia izateko lagapen kontratua izan behar dute, jabeek eta erabiltzaileek izenpetuta. Adingabeen kasuan, hauen ardura dutenek izenpetuko dute.

II. KAPITULUA. EKIPAMENDUA ETA GARBITASUNAREN ETA OSASUNAREN ARLOKO BALDINTZAK

10. ARTIKULUA.- APLIKAGARRITASUN OROKORRA.

Kapitulu honetan jasoko diren baldintza eta neurri zuzentzaile guztiak arau orokorrak izango dira, eta Ordenantza honen mende gelditzen diren lokal guztietan bete beharko dira.

Hala ere, arau horiek zehatz-mehatz betetzetik salbuetsi ahal izango da, Udalari behar bezala arrazoitutako eskaera egiten bazaio. Honek

El régimen de los locales en zonas no residenciales, se sujetará a lo previsto en el planeamiento y, en su defecto, en la presente Ordenanza, en la medida que fueran susceptibles de causar molestias o producir riesgos a las personas o bienes, así como originar daños al medio ambiente.

ARTICULO 8.- SEGURO.

Deben tener un seguro de responsabilidad civil con una cobertura mínima de 100.000 € que proteja a las personas usuarias y sus pertenencias ante cualquier hecho que ocurra en él, así como a terceros. Serán las personas usuarias quienes lo contraten. En caso de que los/as usuarios/as sean menores menores, serán sus tutores quienes lo contraten.

ARTICULO 9.- CONTRATO.

Todo local debe tener un contrato de alquiler o de cesión de uso firmado entre las propiedad y las personas usuarias. En caso de menores lo firmarán sus responsables.

CAPITULO II. EQUIPAMIENTO Y REQUISITOS HIGIENICO-SANITARIOS.

ARTICULO 10.- APLICABILIDAD GENERAL.

Las medidas correctoras y requisitos contenidos en este Capítulo tienen el carácter de reglas generales de aplicación a todos los locales afectados por esta Ordenanza.

No obstante, se podrá eximir del estricto cumplimiento de las mismas cuando se solicite de forma suficientemente razonada al

konponbiderik egokienaren aldeko proposamena justifikatuko du.

11. ARTIKULUA.- ZARATAK ERAGINDAKO ERAGOZPENAK SAIHESTEKO NEURRIAK.

Lokala etxebizitza baten beheko solairuan kokatuta badago, intsonorizazio egokia eduki beharko du, ondorengo irizpideen arabera:

b. Irratia, telebista, hari musikala eta musika ekipamenduak erabili ahal izango dira, potentzia handikoak izan ezik. Guztiek ainguratuta egon beharko dute, lokalaren edozein gunetan 75 dB (A) soinu maila gainditu ez dezaten.

c. Hurreko etxebizitzetan, hauen ate eta leihoak itxita daudenean, zarata mailak ezingo du 40 eta 30 dB (A) gainditu. 40 dB goizeko 8:00etan, eta 30 gaueko 22:00etan. Leq. 60 segundutan, ezta 45 eta 35 dB (A) gehieneko balioetan.

c. Erkidegoetan arazoak pila ez daitezten, ez da atalondo bakoitzeko lonja bat baino gehiago irekiko.

d. Gaueko 22:00ak ezkerotik, lokalaren sarreran gazteak ez pilatzea aholkatzen da.

12. ARTIKULUA.- ORDUTEGIA.

Isiltasuna ziurtatu egin behar da, bizikidetzaren bermatze aldera:

Erregimen orokorra: 00:30ak arte.

Ordutegi luzapena:

a) Ordu bat beranduago zarratuko dira ostiral, larunbat eta jaiegun bezperetan.

b) Ordu erdi beranduago ekainaren 1etik irailaren 30era.

Ayuntamiento, el cual propondrá justificadamente la solución más adecuada.

ARTICULO 11.- MEDIDAS PARA EVITAR LAS MOLESTIAS OCASIONADAS POR EL RUIDO.

En el caso de que una lonja esté situada en la planta baja de una vivienda, ésta deberá tener en cuenta los siguientes criterios en cuanto a control de ruidos se refiere:

a. Se podrán utilizar radios, televisiones, hilo musical y equipos de música, excepto los de gran potencia. Estos estarán anclados para no sobrepasar los 75dB (A) de nivel sonoro en cualquier parte del local.

b. En las viviendas cercanas con puertas y ventanas cerradas los niveles de ruido no superarán de 8:00 de la mañana y de 22:00 los 40 y 30 dB (A), respectivamente. Leq. En 60 segundos, ni los 45 y 35 dB (A) en valores máximos.

c. Para evitar acumular problemas en las comunidades no se abrirán más de una lonja juvenil por portal.

d. Se recomienda evitar la concentración de jóvenes en la entrada del local a partir de las 22:00.

ARTICULO 12.- HORARIO.

En lo relativo a garantizar la convivencia se debe de asegurar el silencio:

Régimen gral.: hasta las 00:30h.

Incremento:

a) Una hora los viernes, sábados y vísperas de festivos.

b) Media hora desde el 1 de junio al

c) Abenduaren 16ko, 296/1997 Dekretuaren 12. atalean ezarritakoaren kalterik gabe, ordu bi beranduago Udaleko zaindariaren jaietan, Aste Santuko ostegunetik astelehenera, Iñauterietako ostegunetik asteartera eta, Gabonetan, abenduaren 21etik urtarrilaren 6ra.

Ordutegiaren luzapen orokorrak metagarriak izango dira.

13. ARTIKULUA.- HIGIENE-NEURRIAK.

a. Lokal bakoitzak higienearen gaineko gutxienezko neurriak izan beharko ditu. Lokala, hortaz, garbitasuna errazteko egokituta egon behar da. Lurzorua, hormak eta sabaia, bada, leunak eta garbitzeko errazak izan beharko dira.

b. Lokalaren barruan ezingo da zaborrik pilatu, zabor-poltsa edo zaborrontzietatik kanpo.

c. Lokalaren kanpoaldeak eta inguruak baldintza higieniko egokiak izan beharko dituzte, lokalean. Horrela bada, ez dira botata utziko lokalean egindako jardueraren batean erabilitako gauzak edo bertan sortutako zaborrak.

d. Zaborra kalean dauden udaleko zaborrontzietan jarri behar da.

e. Lokala aireztatua egon behar da betiere.

III. KAPITULUA – ARAUBIDE JURIDIKOA.

14. ARTIKULUA.- LOKAL BERRIAK IREKITZEKO ESKABIDEAK.

30 de septiembre.

c) Dos horas, sin perjuicio de lo establecido en el art. 12 del Decreto 296/1997, de 16 de diciembre, en fiestas patronales, de jueves a lunes de Semana Santa, de jueves a martes de Carnavales y desde el 21 de diciembre al 6 de enero en Navidades.

Las ampliaciones generales de horarios serán acumulables.

ARTICULO 13.- MEDIDAS DE HIGIENE.

a. Cada local debe mantener unas medidas de higiene mínimas. Es por ello que el local debe estar adecuado para facilitar la limpieza, por lo que el suelo, paredes y techos deberán revestirse con elementos lisos y de fácil limpieza.

b. No se puede acumular basura dentro del local fuera de bolsas o contenedores.

c. El exterior del local y sus inmediaciones, tendrán que estar en condiciones higiénicas adecuadas, debiendo evitarse el abandono de objetos o basuras derivadas de alguna actividad del local.

d. La basura debe depositarse finalmente en los contenedores exteriores municipales.

e. Debe garantizarse la ventilación del local.

CAPITULO III - REGIMEN JURIDICO.

ARTICULO 14.- SOLICITUD DE APERTURA DE NUEVOS LOCALES.

1. Baimen-eskaera orria Alkate-Lehendakariari zuzenduko zaio, eta bertan, ondorengo datuak aipatu beharko dira.

- Eskatzailearen izen-abizenak, Nortasun Agiri Nazionalaren zenbakia edo Identifikazio Fiskalerako Zedula, helbidea eta telefonoa.

- Lokalaren ardura duen pertsona/en izen-abizenak, eta harremanetarako telefonoa.

- Adingabeak izanez gero, gurasoen edo tutoreen baimena egiaztatzen duen agiria.

- Lokalaren kokalekua eta deskribapena: kalea eta zenbakia, guztizko azalera eta atalkakoa (bainugelak, biltegia...). Segurtasun neurriak jarrita dauden guneen plano eta zehaztapena.

- Lokalaren jabearen datuak: izen-abizenak eta telefonoa.

- Lokala kokatuta dagoen Jabe erkidegoko presidentearen izena, abizenak eta telefonoa. Pertsona hau izango da gazteekin harremanetan izango dena.

- Lokalaren jabetza egiaztatzen duen dokumentua edo alokairuaren kontratua.

- Erantzukizun zibileko aseguruaren kopia. Eskabidea lokalaren lehenengo erabilerarako denean, erantzukizun zibileko aseguruaren aurrekontua aurkeztu beharko da. Azkenean erabilera-baimena ematen baldin bada, aste beteko epean aurkeztu beharko da erantzukizun zibileko aseguruaren

1. La solicitud se formulará mediante instancia, dirigida a la Alcaldía-Presidencia, en la que se hagan constar los siguientes datos:

- Nombre y apellidos de la persona solicitante, número de su Documento Nacional de Identidad o Cédula de Identificación Fiscal, su domicilio y teléfono.

- Nombre y apellidos de la/s persona/s responsables del local y un teléfono de contacto.

En caso de menores, documentación acreditativo de la aprobación de las madres/padres o tutores.

- Emplazamiento y descripción del local: calle y número, superficie total y parcial (baños, almacenes...), plano y detalle de los lugares donde están instaladas las medidas de seguridad.

- Datos de la persona propietaria: nombre, apellidos y teléfono.

- Nombre, apellidos y teléfono del/de la presidente/a de la Comunidad donde se ubique el local, que será quien que se relacione con las/os jóvenes.

- Documento que acredite la propiedad o contrato de arrendamiento del local.

- Copia del seguro de responsabilidad civil. En caso de solicitud de primer uso del local, presupuesto del seguro de responsabilidad civil. Una vez inscrita la lonja, deberá presentarse la copia del seguro de responsabilidad civil en el plazo de una semana.

kopia.

- Su-itzalgailua erosi izanaren eta mantentze-zerbitzuaren ordainagiriaren kopia.

- Edukiera.

- Lokaleko zarata-igorleak eta neurri zuzentzaileak..

- Barne araudia.

- *Copia del recibo de compra del extintor y del contrato de mantenimiento.*

- *Aforo.*

- *Emisores de ruido del local y las medidas correctoras.*

- *Reglamento interno.*

15. ARTIKULUA.- LOKAL BERRIAK IREKI AHAL IZATEKO EDO EGUN ERABILTZEN DIREN LOKALEN EGOERA ARAUTZEKO PROZEDURA.

ARTICULO 15.- PROCEDIMIENTO PARA LA APERTURA DE NUEVOS LOCALES O PARA REGULAR LA SITUACIÓN DE LOS QUE YA SE ENCUENTRAN EN USO.

a) Lokal bat ireki aurretik edo beharrezkoa den baimen barik gaur egun erabilera hau duten lokalen egoera erregularizatzeko, gazteek aurreko artikuluan jasotako dokumentazioa aurkeztu behar dute Udaletxean.

a) Antes de abrir un local o para la regularización de la situación de los locales que ya encuentran en uso sin la correspondiente licencia, los y las jóvenes deben presentar en el Ayuntamiento la documentación señalada en artículo anterior.

b) Lokala erabili ahal izateko baimena lortzeko aurkezten den dokumentazioa eskatutakoa izan ezean, hamar eguneko epea emango da akatsa zuzentzeko. Eskatutako dokumentazioa adierazitako epe horretan aurkezten ez baldin bada, eskaera bertan behera utziko da eta artxibatu egingo da.

b) En caso de que la documentación presentada no sea la exigida, se concederá un plazo de diez días para su subsanación. En caso de no presentarse en el plazo señalado la documentación requerida, se entenderá por desistida la solicitud y se procederá al archivo de la misma.

c) Ordenantza honetan ezartzen diren baldintzak betetzen dituztela egiaztatuta, lonja inguruko auzotarrei honen berri emango zaie eta hamar (10) eguneko epea emango zaie alegazioak aurkeztu ahal izateko.

c) Una vez comprobado que la documentación reúne los requisitos exigidos en la presente Ordenanza, se informará de ello a las vecinas y vecinos colindantes y se abrirá un plazo de diez (10) días para la presentación de alegaciones.

d) Kasurako, aurkeztutako alegazioak ikusita eta ebatzita, lonjek Ordenantzaren

d) Vistas las alegaciones presentadas, en su caso, y resueltas las mismas, si el

baldintzak betetzen badituzte, beren-beregi sortutako erregistroan inskribatuko dira eta gazteek horren berri izango dute.

e) Bestalde, Udalak neurri zuzentzaileak eskatu ahal izango dizkie gazteei edo lokala gazte-lonja bezala zergatik ezin den erabili jakinarazi. Jakinarazpen hau bi hilabeteko epean egin beharko du Udalak, dokumentazioa aurkeztu zenetik edo dokumentazio osagarria eskatu bazen, dokumentazioa aurkeztu zenetik zenbatzen hasita.

d) Udalaren eta gazteen arteko gorabeherak, Ordenantza honi atxikita datorren protokoloak xedatzen duenaren arabera ebatziko dira. Dena den, ados jarri arte, lokala ezingo da erregistroan inskribatu.

16. ARTIKULUA.- ERREGISTRATU GABEKO LOKALAK

Izan daitezkeen bestelako zigorrei utzi gabe, Ordenantza honek ezartzen dituen baldintzak lokal batek betetzen ez dituela jakindakoan, honako neurri hauek hartuko dira:

a) Lokala erregularizatzeko modukoa baldin bada, titularrei eskatuko zaie beraien egoera erregulariza dezatela; horretarako, gehienez ere, hiru hilabeteko epea emango zaie, behar bezala justifikatutako kasuetan izan ezik. Horretaz gain, lokala itxi ahal izango da, egokitzat jotzen baldin bada; interesatuei entzunaldia eskaini ondoren.

b) Lokala erregularizatzea ezinezkoa

local cumple las condiciones exigidas por la Ordenanza, se procederá a su inscripción en el registro que se cree al efecto, notificándose así a los y las jóvenes interesadas.

e) Por el contrario, Ayuntamiento podrá exigir a los/as jóvenes las medidas correctoras o hacerles saber por qué la lonja no se puede utilizar como tal. Esta notificación la deberá hacer el Ayuntamiento en el plazo de dos meses después de haberse presentado la documentación, y en el caso de haberse requerido una documentación complementaria, desde el momento de la presentación de ésta.

f) Las diferencias entre el Ayuntamiento y los y las jóvenes interesadas se resolverán de acuerdo con lo dispuesto en el Protocolo anexo a esta ordenanza. En todo caso, hasta que se llegue a un acuerdo, el local no podrá inscribirse en el registro.

ARTICULO 16.- LOCALES SIN REGISTRAR.

Sin perjuicio de las sanciones que pudieran darse, cuando se tenga conocimiento de que un local funciona sin acomodarse a lo establecido en la presente Ordenanza, se efectuarán las siguientes actuaciones:

a) Si el local pudiese regularizarse, requerirá a los/as titulares del mismo para que regularicen su situación, concediéndoles al efecto un plazo que, salvo casos excepcionales debidamente justificados, no podrá ser superior a tres meses, pudiendo además clausurarlo, si las circunstancias lo aconsejaran, previa audiencia de los interesados.

b) Si el local no pudiera regularizarse

baldin bada, ordenantza hau edo gainontzeko udal araudia betetzen ez dituelako, lokala itxi egin beharko da; hala ere, interesatuei entzunaldia eskainiko zaie.

IV. KAPITULUA DIZIPLINA- ARAUBIDEA

17. ARTIKULUA.- ARAU- HAUSTEAK.

a) Arau-hauste larriak: Arau-hauste larritzat joko dira, baldin eta pertsonen, hauen ondasunei edo ingurumenari kalte larria egiten badiete, eta ordenamendu juridikoak agindutakoaren aurka egiten badira.

b) Arau-hauste arinak: Arau-hauste arintzat joko dira, baldin eta pertsonengan, hauen ondasunetan edo ingurumenean duten eragin eskasarengatik, arau-hauste horiek horrela sailkatzeko arrazoirik ez dagoenean.

18. ARTIKULUA.- PRESKRIPZIOA.

Ordenantza honetan aipatzen diren arau-haustek ondorengo epe hauetan preskribatuko dira, egintza burutzen denetik hasita edo ingurumenari egin zaion kaltea detektatzen denetik hasita, baldin eta berehalakoa ez bada:

a) Urtebete eta bi urte bitartean, arau-hauste larrien kasuan.

b) 6 hilabete eta urtebete bitartean, arau-hauste arinen kasuan.

19. ARTIKULUA.- ZEHAPENAK.

a) Arau-hauste larriak:

- Erkidegoarentzako lanak eginez, 15 eta 30 egun bitartean.

- Instalazioa erabat edo zati bat ixtea aldi baterako (gehenez ere, urtebete).

por incumplimiento de esta ordenanza o demás normativa municipal, deberá procederse a su clausura, previa audiencia de los interesados.

CAPITULO IV. REGIMEN DISCIPLINARIO

ARTICULO 17.- INFRACCIONES.

a) Infracciones graves: *Se consideran infracciones graves cuando generan riesgos o daños de carácter grave a las personas, sus bienes o el medio ambiente y se realicen contraviniendo el ordenamiento jurídico.*

b) Infracciones leves: *Se consideran infracciones leves cuando por su escasa incidencia sobre las personas, sus bienes o el medio ambiente no se den los supuestos para dicha calificación.*

ARTICULO 18.- PRESCRIPCION.

Las infracciones a que se refiere la presente Ordenanza prescribirá en los siguientes plazos a contar desde la comisión del hecho o desde la detección del daño ambiental, si este no fuese inmediato:

a) *Entre 1 año y 2 años en caso de infracciones graves.*

b) *Entre 6 meses y 1 año en caso de infracciones leves.*

ARTICULO 19.- SANCIONES.

a) Para las infracciones graves:

- *Entre 15 días y 30 días de trabajo para la comunidad.*

- *Clausura temporal, total o parcial de las instalaciones por un período máximo de un año.*

- Ohartarazpena.

b) Arau-hauste arinak:

- Erkidegoarentzako lanak eginez, 5 eta 10 egun bitartean
- Instalazioak aldi baterako eta erabat edo partzialki ixtea (gehenez ere, sei hilabete).

- Ohartarazpena.

Lokala behin betiko itxi ahal izango da salbuespen gisa. Neurri edo zehapen hau hartu aurretik, protokolo erantsia aplikatuko dela bermatuko da, eta baita artikulu honetan batzen diren zehapenen aplikazioarena ere.

**LEHENENGO XEDAPEN
GEHIGARRIA.- LOKALEN ETA
ERABILTZAILIEN ERREGISTROA.**

a. Udalak egon dauden lonjen erregistroa izango du, ordenantza honen bidez lortutako datuez baliatuta.

b. Lonjek segimendua izango dute eta martxan ez dauden lonjei baja emango zaie, edo lonjan aldaketaren balego, jakinarazi.

c. Udalak bitartekari lanak egingo ditu sor daitezkeen gatazketan. Dena den, beti emango zaie lehentasuna aldeek hartutako erabakiei.

d. Gazte bulegoak informatuta izango ditu beti lonjetako gazteak.

**BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.
IKUSKATZEA ETA KONTROLATZEA.**

- *Apercibimiento.*

b) Para las infracciones leves:

- *Entre 5 días y 10 días de trabajo para la comunidad.*

- *Clausura temporal, total o parcial de las instalaciones por un período máximo de 6 meses.*

- *Apercibimiento.*

Se podrá clausurar el local de manera definitiva como manera excepcional. Previo a la toma de decisión de dicha medida se garantizará la aplicación del protocolo anexo así como la aplicación de las sanciones contempladas en éste artículo.

**DISPOSICIÓN ADICIONAL
PRIMERA.- REGISTRO DE LOCALES Y
PERSONAS USUARIAS.**

a. El Ayuntamiento desarrollará un registro de lonjas basándose en los datos que obtenga por medio de esta Ordenanza.

b. Se realizará un seguimiento de las lonjas, para dar de baja a las lonjas que ya no funcionan o comunicarlo en caso de que haya algún cambio.

c. El Ayuntamiento desarrollará la función de mediación en los posibles conflictos que puedan surgir, siempre dando prioridad a los acuerdos que establezcan las partes.

d. Por medio de la oficina juvenil se dará información a las y los jóvenes de las lonjas.

**DISPOSICIÓN ADICIONAL
SEGUNDA. INSPECCIÓN Y CONTROL.**

1. Lokalak urtero ikuskatuko dira, zein egoeratan dauden ikusteko, eta lokalen zerrenda eguneratuta izateko.

2. Udalaren eskumenekoak izango dira ordenantzan ezarritakoa benetan betetzen dela egiaztatzeko egingo diren funtzioak. Era berean, udalak beharrezko ikuskapenak egiteko ahalmena izango du. Alkateak, edo hala badagokio, Hirigintzako Zinegotzi Delegatuak eskumena izango dute beharrezko neurriak hartzeko, funtziook bermatuak izan daitezzen.

3. Lokalen baten funtzionamenduan akatsak daudela ikusiz gero, lokaleko ordezkariari eskatuko zaio akatsak zuzen ditzala, eta horretarako, epe jakin bat emango zaio. Epe hori ez da hiru hilabetetik gorakoa izango, behar bezala justifikatutako kasuetan izan ezik.

4. Ikuskapen bisita bat egiten den bakoitzean, arauen aurka joan daitezkeen ekintzei buruzko akta egin beharko da. Aktan ekintza haien erantzukizuna duen pertsonak egiten dituen alegazioak jaso beharko dira. Akta hauek ziurtasun-presuntzioa eta froga-balioa izango dute. Horretaz gain, beraien interesak babestu ahal izateko, administratuek aurkeztu ahal izango dituzten gainerako frogak ere kontuan izango dira.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Gaur egun zabalik dauden eta gazteen aisialdirako lokal gisa funtzionatzen ari diren lokalak egokitzeko eta Ordenantza honetan eskatzen den dokumentazio guztia aurkezteko epea urte betekoa izango da, Ordenantza hau indarrean sartzen den egunetik zenbatzen hasita.

1. Anualmente se inspeccionará la situación de los locales con el fin de mantener actualizada la relación de los mismos.

2. Serán competencia municipal las funciones a desarrollar para el efectivo cumplimiento de lo dispuesto en la ordenanza, así como para realizar las debidas inspecciones, hallándose facultados el Alcalde o en su caso el/la Concejal/a Delegado/a de Urbanismo para adoptar las medidas necesarias con el objeto de garantizar tales funciones.

3. Advertidas deficiencias en el funcionamiento del local, se requerirá al/a la representante del mismo para que corrija aquéllas en un plazo determinado que, salvo casos especiales debidamente justificados, no podrá ser superior a tres meses.

4. De toda visita de inspección se levantará un acta descriptiva de los hechos que puedan ser motivo de irregularidad, acta en la que se harán constar las alegaciones que formule el/la responsable de aquéllos. Estas actas gozarán de la presunción de certeza y valor probatorio, sin perjuicio de las demás pruebas que, en defensa de los respectivos intereses, puedan aportar los administrados.

DISPOSICION TRANSITORIA

Los locales que actualmente estén abiertos y funcionando como locales de ocio de jóvenes tienen un plazo de un año a partir de la entrada en vigor de la presente Ordenanza, para acondicionarlos y aportar la documentación exigida en la misma.

AZKEN XEDAPENA.

Ordenantza hau indarrean sartuko da, haren testu osoa Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitara eman eta egutegiko 15 egun igaro ondoren.

DISPOSICIÓN FINAL

Esta Ordenanza entrará en vigor una vez transcurridos 15 días a partir de su publicación en el Boletín Oficial de Bizkaia.

GERNIKA-LUMOKO GAZTEEN LOKALEI BURUZKO UDAL ARAUDIA.

NORMATIVA MUNICIPAL SOBRE LOS LOCALES DE JÓVENES DE GERNIKA-LUMO.

ADOSTUTAKO ELKARBIZITZARAKO PROTOKOLOA

Helburua: Protokolo honek lokalen fenomenoak sor ditzaken gertakari eta elkarbizitza arazo ezberdinak detektatu, bideratu eta konpontzen saiatzea izango du helburu nagusizat.

Erabilera: Egunerokotasunean lokalen erabilera kudeatzeko erabiliko da nagusiki.

Gatazken aurrean eta desadostasunak daudenean ere aplikatuko da.

Ordenantzan edo itunean adostasunik lortu ez duten puntuak jorrazeko, adosten den protokolo hau erabiliko da.

Ordezkariek: Lokal bakoitzeko eta etxeke bizilagunetatik kide bana arduradun edo ordezkari bezala izendatuko dira.

Adin txikiko gazteak dituzten lokaletan, gazte bat eta guraso bat izendatuko dira arduradun bezala.

Gazte lokalen kasuan, ordezkaria momentuan aukeratu ahal izango da. Hala ere, kontakturako telefono zenbaki bat eman beharko da.

Bizilagunei dagokionez, etxe-blokeak erabakiko du bilera batean nor izango den ordezkaria (administratzailea, interesa azaltzen duen bizilaguna...). Era berean, bizilagunek erabakiko dute ere, bloke batean lokal bat baino gehiago badaude

PROTOCOLO PARA LA CONVIVENCIA

Objetivo: Este protocolo tiene como objetivo principal detectar, encauzar e intentar dar solución a los diferentes conflictos de convivencia y sucesos que pueda generar el fenómeno de las lonjas.

Uso: Este protocolo se usará, sobre todo, para gestionar el uso diario de las lonjas.

Se aplicará ante cualquier conflicto o desacuerdo.

Los puntos de la Ordenanza o del "pacto" que no han conseguido acuerdo se tratarán mediante este protocolo de convivencia.

Representantes: Cada lonja y el vecindario de cada bloque de viviendas nombrarán un delegado o representante.

En caso de las lonjas con jóvenes menores de edad, se nombrarán tanto un/a joven como un padre/madre como representantes.

En el caso de las lonjas, se podrá acordar la persona representante en el momento. Aun así la lonja deberá facilitar un teléfono de contacto.

En el caso de los/as vecinos/as, el/la representante (administrador/a, vecino/a que muestre su interés...) se acordará en una reunión de vecinos/as. Serán los/as propio/as vecinos/as quienes también decidan cuantos representantes nombrar

zenbat ordezkari izendatu (bakarra, lokal bakoitzeko bana...)

Administrazioaren testigantza: Udaleko teknikariari izendatu diren arduradunen izenak eta datuak igorriko zaizkio.

Harreman ordinarioa: Eguneroko erlazioaz gain, udal teknikariak eta udaltzaingoa (soilik muturreko kasuetan) onartuko dira, lokalen erabiltzaile eta bizilagunen arteko elkarbizitza egokia bermatzeko erreferente bezala eta udal aparejadorea, lokalak betebeharreko osasun eta segurtasun baldintzen erreferente bezala.

Gainera, urtean bitan bilera egingo da. Bilera horren ondorioak teknikariari helaraziko zaizkio idatziz, memorian artxiba ditzan.

Harreman ordinario honetan, bizilagun, gazte eta kasu batzuetan gurasoekin batera, udaleko ordezkariak hartuko dute parte, gaiaren arabera figura bat edo beste izendatuaz.

Ohikoak ez diren arazoak sortu ezker, elkarri bilera bat egitea eskatuko diote. Gaiaren arabera erabakiko da nortzuk bilduko diren bilera horretan.

Gatazka bideratzeko prozesua eta pausuak:

Gatazka bat ematen denean, udaltzainak eta udaleko teknikaria izango dira figura erreferenteak. Hauek izango dira, era berean, gazte eta bizilagunekin harremana izango dutenak eta egoeraren diagnostika burutuko dutenak.

en el caso de que haya más de una lonja por bloque de viviendas (único/a representante, uno/a por lonja...).

Testificación a la Administración: Se le facilitarán los nombres y datos correspondientes de los/as representantes elegidos/as a la técnica del Ayuntamiento.

Relación ordinaria: Además de la relación diaria, se reconocerán las figuras de los/as técnicos/as municipales y la Policía Municipal (en casos extremos), como garantes de una convivencia entre usuarios/as y vecinos/as y la figura del/la aparejador/a municipal como "definidor/a" de las carencias y acciones correctoras a ejecutar en cuanto a la seguridad y salubridad de las lonjas.

Además, se convocarán dos reuniones anuales. Se le facilitarán las conclusiones de la reunión a la técnica, para que las archive en una memoria.

En esta relación ordinaria participarán junto a los/as jóvenes, vecinos/as y en algunos casos padres/madres, representantes del ayuntamiento, asignando una figura u otra dependiendo del tema correspondiente.

Ante temas o problemas extraordinarios, ambas partes acordarán una reunión. La asistencia se decidirá dependiendo de cada caso y tema.

Proceso para encaminar conflictos y pasos:

Cuando surja un conflicto, las figuras referentes serán la Policía Municipal y la técnica del ayuntamiento. Serán estas figuras quienes tengan contacto con los/as jóvenes y vecinos/as y quienes realicen el diagnóstico oportuno.

Lokaleko gazte nahiz bizilagunek, arazo bat errepikatzen denean, bi aldeetako arduradunak bilera batetara deituko dituzte arazoari bide ematen saiatzeko. Haien kabuz konponbidea adosteko ahaleginak egingo dituzte bi aldeek.

Arazoa bilera honetan konponduko ez balitz, udaleko teknikariarengana joko da. Honek, bitartekaritza eskainiko du eta negoziazio berriak ahalbidetuko ditu.

Administrazioaren bitartekaritzak fruiturik emango ez balu, honek kanpo aholkularitza eskatuko du bitartekaritza funtzioa egiteko.

Udala: Udalak, bere aldetik, dituen eta eskaini ditzaken baliabideak aztertuko ditu beharrezkoa den laguntza emateko, hala eskatuko zaion kasuetan.

Udalaren ustez beharrezkoa da, azken aldian eta batez ere, gazteen artean hazten ari den errealitate sozial bat arautzea. Horretaz gain, Udalak herritarren eta lokalen erabiltzaileen atsedean egokia eta segurtasuna bermatzeko beharra du.

Noizean behin, egiaztatu ahal izan da gazteek erabiltzen dituzten hainbat lokalek ez dituztela neurri zuzentzaile egokiak betetzen. Gainera, lokal edota eraikin horien egiturazko baldintzak desagokiak dira, eta ondorioz, arriskuak areagotu egiten dira.

Ordenantza hau ondorengo xedek kontuan izanda sortu da: aisialdi alternatiborako gazteek, batik bat, eskatzen dituzten tokiak bermatzea, erabiltzaileei eta auzokoei enbarazurik eta kalterik ez egitea, maizterren eta bizilagunen eskubideak eta betebeharrak

Cuando alguna de las partes detecte algún conflicto llamará a los/as representantes de ambas partes a una reunión. Las dos partes intentarán resolver el problema por su cuenta.

En caso de que el problema no se resuelva en dicha reunión, la técnica del ayuntamiento mediará en el tema, facilitando nuevas negociaciones.

En caso de que la mediación de la Administración no fuese efectiva, la propia Administración pedirá la mediación de asesoría externa.

Ayuntamiento: El Ayuntamiento, por su parte, se compromete a analizar los medios que tiene y/o puede facilitar para ayudar en el desarrollo de una buena convivencia, cuando sea necesario.

El Ayuntamiento recoge la necesidad de regularizar una realidad social creciente, principalmente de jóvenes, al tiempo que debe garantizar el correcto descanso y seguridad de los/as vecinos/as así como de los/as propios/as usuarios/as.

En ocasiones se constata la existencia de lonjas dispuestas para tales usos, sin disponer no sólo de las medidas correctoras idóneas, sino que, además, las condiciones de la lonja y/o edificio son estructuralmente inadecuadas, incrementando por tanto el riesgo.

Con la finalidad de garantizar un lugar de ocio alternativo, demandado principalmente por los/as jóvenes, evitar molestias y riesgos para los/as propios/as usuarios/as y para el vecindario, conciliar los derechos y deberes de inquilinos/as y vecinos/as determinando las

bateratzea, inplikaturako alderdien erantzukizunak zehaztea, eta azkenik, interes pribatuak eta publikoak uztartuko dituen konponbide egokia jartzea.

responsabilidades de las partes implicadas y habilitar una solución satisfactoria que armonice los intereses privados con el interés público, nace el presente protocolo y Ordenanza al que está anexo.